GIZARTEARI ENTZUTEKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO EZAUGARRI TEKNIKOEN AGIRIA

1.- Sarrera

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Plan Estrategikoa legegintzaldiko gobernu-ekintzan lider izateko tresna nagusia da, eta lankidetzazko gobernantza aurre hartzailearen ereduan sakontzen du, erakunde publikoekin, gizarte zibilarekin eta herritarrekin batera, politika publikoak eta haien ekosistemak berrikuntzaren ikuspegitik indartzeko.

Etorkizuna Eraikiz, 2016an egindako hasierako definiziotik, Gipuzkoako Foru Aldundiak "politika egiteko" modu berri bat aplikatzerakoan bultzatu nahi duen lankidetzazko gobernantza aurre hartzailea ulertzeko eta aplikatzeko modua da, horrela, lurraldearen erronkei berrikuntzaren eta esperimentazioaren ikuspegitik erantzuteko.

Era berean, aurreko legegintzaldiaren amaieran egindako Etorkizuna Eraikiz proiektuaren bilakaeraren azken ebaluazioa erreferentziatzat hartuta, bai eta munduko unibertsitate onenetako batzuetako akademikoen partzuergo batek egindako "Etorkizuna Eraikiz" kasuaren lanketan lortutako ondorioak ere, izen bereko liburuaren argitalpenaren emaitza izan zena, legegintzaldi berrian, Etorkizuna Eraikizek jauzi kualitatiboa ematen du bere bilakaeran, eta Plan Estrategikoa bera hedatzen den esparru bihurtzen da; beraz, Etorkizuna Eraikizen hurrengo lau urteetarako ibilbide-orria da.

Horrela, legegintza-aldi berrian, Etorkizuna Eraikiz da Gipuzkoako Foru Aldundiak politikaren eta politika publikoen kudeaketan berritzeko egin duen apustu irmoa. Apustu horren bidez, konfiantza publikoa eta erronkei eta proiektuei modu kolektiboan heltzeko gaitasuna hobetu nahi dira. Horrela, agenda publiko berritzailea modu eraginkorragoan garatuz, areagotu egiten da demokraziaren, konfiantzaren eta balio publikoaren sorrera.

Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako hausnarketa estrategikoak hipotesi konformista bat saihestu nahi du etorkizunari aurre egiteko orduan, eta Gipuzkoak etorkizunari aurre egiteko behar

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN DE SERVICIOS DE ESCUCHA A LA SOCIEDAD

1.- Introducción

El Plan Estratégico 2024-2027 de la Diputación Foral de Gipuzkoa, concebido como el principal instrumento para el liderazgo en la acción de gobierno de la legislatura, profundiza en el modelo de gobernanza colaborativa y anticipatoria, junto con las instituciones públicas, la sociedad civil y la ciudadanía, para fortalecer las políticas públicas y sus ecosistemas desde la innovación.

Etorkizuna Eraikiz, desde su definición inicial en el año 2016, representa la manera de entender y aplicar la gobernanza colaborativa y anticipatoria que la Diputación Foral de Gipuzkoa quiere impulsar a la hora de aplicar una nueva forma de "hacer política", dando así respuesta a los retos del territorio desde la innovación y la experimentación.

Asimismo, tomando como referencia la última evaluación de la evolución de Etorkizuna Eraikiz realizada a final de la legislatura anterior, así como de las conclusiones obtenidas en la elaboración del "Caso Etorkizuna Eraikiz" realizado por un consorcio de académicos y académicas pertenecientes a algunas de las mejores universidades del mundo y que dio fruto a la publicación del libro con el mismo nombre, en la nueva legislatura, Etorkizuna Eraikiz da un salto cualitativo en su evolución y se convierte en el marco desde donde se despliega el propio Plan Estratégico, por lo que el mismo es la hoja de ruta de Etorkizuna Eraikiz para los próximos cuatro años.

De tal forma, en el nuevo periodo legislativo, Etorkizuna Eraikiz se asienta como la apuesta decidida de la Diputación Foral de Gipuzkoa para innovar en la gestión de la política y de las políticas públicas, a través del cual se persigue mejorar la confianza pública y la capacidad de abordar retos y proyectos de manera colectiva. De esa manera, desarrollando la agenda pública innovadora de manera más eficaz, se incrementa la generación de democracia, confianza y valor público.

La reflexión estratégica que impulsa la Diputación Foral de Gipuzkoa quiere evitar una hipótesis conformista a la hora de afrontar el futuro y propone que desde una actitud proactiva Gipuzkoa cree las

dituen baldintza onenak sor daitezela proposatzen du, betiere jarrera proaktibo baten ikuspegitik begira. Nolanahi ere, badakigu gizarteak aurre egin beharreko aldaketek oinarriak jarriko dituztela epe ertain eta luzeko eredu sozial eta ekonomikorako. Era berean, Foru Aldundiak Gipuzkoaren berezitasunak sendotu nahi ditu, zehazki, lehiakortasuna, sormena, erakargarritasuna, kohesio soziala eta lurralde oreka.

Ildo horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak inpaktu horiei erantzun nahi die, etorkizunean gertatuko diren beste batzuei aurrea hartu, eta bere praktikak aldaketaren erritmo azkarrak proposatzen dizkigun erronketara egokitu, lankidetzazko gobernantza aurre hartzaile baten bidez.

Herritar-erakunde lotura hori gauzatu ahal izateko, komunikazio-kanalak behar dira, herritarrek aintzat hartzen eta baloratzen dutena ordezkatzen duen iritzia bermatzeko. Horretarako, ikerketa prospektibo demoskopikoaren teknika gizarte-errealitatearen bermatzaile egokienetako bat dela uste da.

Ikerketa prospektibo demoskopikoaren teknikarekin batera, egokitzat eta beharrezkotzat jotzen da gizarteari entzuteko teknika kualitatiboak txertatzea, hala nola eztabaida-taldeak edo focus group, eta entzute iraunkorrerako eta gizartearen joeren jarraipenerako tresna digital bat izatea. Ikerketa teknika horiek guztiak batuta, proposatutako helburu guztiei erantzun ahal izango zaie, eta balio eta fidagarritasun handieneko emaitzak lortuko dira, eta, ondorioz, eraginkortasunez jardun ahal izango da horiekin.

Beraz, kanal horren bidez, Gipuzkoako gizarte errealitatearen erretratu bat lortu nahi da gai komunei dagokienez (jarrera politikoak eta egoeraren balorazioa), baita beste gai espezifiko batzuei dagokienez ere, ikuspegi deskribatzaile, ebolutibo eta konparatiboarekin. Beraz, helburua ez da soilik egungo egoera ezagutzea, baizik eta errealitatearen bilakaera ezagutzea, arduradun politikoei informazio zehatza eta eguneratua emateko, horrek guztiak, lehenik eta behin, agenda publikoan eragina izan dezan, bigarrenik, politika publikoetan eta, hirugarrenik, lurraldearen etorkizuneko erronka estrategikoei erantzuteko gaitasun kolektiboan.

mejores condiciones para abordar su futuro. Todo ello siendo conscientes de que los cambios que afronta la sociedad guipuzcoana van a sentar las bases del modelo social y económico a medio y largo plazo. Al mismo tiempo, la Diputación Foral se propone reforzar las señas de competitividad, creatividad, atracción, cohesión social y equilibrio territorial que caracterizan a Gipuzkoa.

En este sentido, la Diputación Foral de Gipuzkoa se propone responder a tales impactos, anticiparse a otros que en el futuro se producirán y adaptar sus prácticas a los desafíos que el ritmo acelerado del cambio nos va proponiendo, mediante una gobernanza colaborativa y anticipatoria.

Para poder ejecutar esta conexión ciudadanía-institución se precisa de canales de comunicación que muestren una opinión representativa de lo que la ciudadanía considera y valora. Para ello, se considera que la técnica de investigación prospectiva demoscópica es una de las más adecuadas como garantes de la realidad social.

Junto a la técnica de investigación prospectiva demoscópica, se considera adecuado y preciso necesario incorporar técnicas cualitativas de escucha a la sociedad como puedan ser los grupos de discusión o focus group, así como contar con una herramienta digital de escucha permanente y seguimiento de las tendencias de la sociedad. La suma de todas estas técnicas de investigación posibilitará responder a la totalidad de los objetivos propuestos obteniendo unos resultados de máxima validez y fiabilidad con los que, consecuentemente, podrá actuarse con eficacia.

De esta manera, a través de estos canales, se pretende conseguir un retrato de la realidad social guipuzcoana en cuanto a temas comunes (actitudes políticas y valoración de la situación) así como de otros temas específicos, con enfoque descriptivo, evolutivo y comparativo. De tal forma que no se trata solo de conocer la situación actual, sino la evolución de la realidad, a fin de proveer de información exacta y actualizada a los responsables políticos con la voluntad de que todo ello tenga un impacto, en primer lugar, en la agenda pública, en segundo lugar, en las políticas públicas y, en tercer lugar, en la capacidad colectiva de respuesta a los retos futuros y estratégicos del territorio.

Ataza horiek eta plegu honetan deskribatzen diren beste batzuk osatuko dute lizitazio berri honen xedea. Estrategia Zuzendaritzak ez du giza baliabide nahikorik zeregin horiek guztiak bere kabuz egiteko, eta, beraz, beharrezkoa da kanpoko laguntza izatea.

2. Kontratuaren xedea

Kontratuaren xedea hiru lotetan banatuta dago:

1. lotea.- 2024-2027 aldian "Gipuzkoako Soziometroa" izeneko azterlan soziologiko demoskopikoak planifikatu, diseinatu eta gauzatzea, Gipuzkoako herritarrek gai soziopolitikoetan dituzten beharrak eta eskaerak ezagutzeko, sei hilean behingo zundaketen bidez.

2. lotea.- Gizarteari entzutea teknika kualitatiboen bidez, hala nola, eztabaida-taldeen bidez (focus group).

3. lotea.- Tresna digitalen bidez, gizarteari etengabe entzutea eta bere joeren jarraipena egitea.

3. Garatu behar diren eginkizunak. 1. lotea.

Legegintzaldiko urte oso bakoitzean bi zundaketa egingo dira urtero, bat lehen seihilekoan eta bestea bigarrenean. 2027an – legegintzaldiko azken urtea –, zundaketa bakarra egingo da lehen seihilekoan. Azterketa horiek egiteko, gutxienez 1.200 parte-hartzaileren lagina eduki beharko da. Zundaketa bakoitzean 170 inkesta egin beharko dira gutxienez egunero.

Enpresa esleipendunak, zehazki, honako lan hauek egin beharko ditu:

- 2024-2027ko plangintza, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak balioztatuko duen galdetegia aztertu, balioetsi, maketatu eta editatzea.
- Landa-lana: datu bilketa, kontrola eta arazketa. Landa-lana telefono bidezko elkarrizketak izango dira.

Estas y otras tareas que se describen en el presente pliego van a conformar el objeto de esta nueva licitación. La Dirección de Estrategia no cuenta con los recursos humanos suficientes para llevar a cabo por sí misma todas estas tareas por lo que resulta necesario contar con una asistencia externa.

2. Objeto del contrato

El objeto del contrato se encuentra dividido en tres lotes:

Lote 1.- Planificación, diseño y ejecución en el periodo 2024-2027 de estudios sociológicos demoscópicos denominados "Sociómetro de Gipuzkoa", para conocer las necesidades y demandas de la ciudadanía guipuzcoana en temas sociopolíticos, mediante sondeos semestrales.

Lote 2.- Escucha a la sociedad a través de técnicas cualitativas como puedan ser los grupos de discusión (focus group).

Lote 3.- Escucha permanente y seguimiento de las tendencias de la sociedad a través de herramientas digitales.

3. Tareas a desarrollar. Lote 1

Se realizarán dos sondeos anuales cada año completo de legislatura, uno durante el primer semestre y otro en el segundo semestre. En 2027 —último año de legislatura—, se realizará un único sondeo durante el primer semestre. Para estos estudios será necesario disponer de una muestra mínima de 1200 participantes. En cada uno de los sondeos deberán realizarse 170 encuestas como mínimo cada día.

La empresa adjudicataria deberá realizar, en concreto, las siguientes tareas:

- Planificación 2024-2027, conjuntamente con la Diputación Foral de Gipuzkoa.
- Análisis, validación, maquetación y edición de cada cuestionario que se someterá a la validación de la Diputación Foral de Gipuzkoa.
- Trabajo de campo: recogida de datos, control y depuración. El trabajo de campo se desarrollará a través de entrevistas telefónicas.

- Grabazio informatikoa. Galdera irekiren bat badago, enpresa esleipendunak hitzez hitz grabatuko ditu testu-erantzunak eta ondoren, kodifikatu egin beharko ditu. Testu-erantzun horiek datu-fitxategiaren amaieran erantsitako testu-zutabeetan grabatu beharko dira.

- Datu baseak egitea.

- Emaitzen behin-behineko txostena.

- Emaitzen behin betiko txostena, balorazioa barne.

  Enpresa esleipenduna arduratuko da azken txostena diseinatzeaz, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak baliozkotuko du.

- Txostenak eta datu-baseak entregatu eta aurkeztea.

4. Garatu behar diren eginkizunak. 2. lotea.

Urtean bi azterlan egingo dira legegintzaldiko urte oso bakoitzean. Proposatutako teknika eztabaida-taldeena bada (focus group), azterketa bakoitzeko bost talde osatuko dira, gutxienez 8 partaidez osatuak, eta, ahal dela, aurrez aurrekoak izango dira. 2027an — legegintzaldiaren azken urtean —, galdeketa bakarra egingo da lehen seihilekoan.

Azterlan kualitatiboei esker, herritarrek gaur egungo egoera sozial, ekonomiko eta politikoa egituratzen duten hainbat elementuri buruz duten iritzia ezagutu ahal izango da. Horretarako, sentsibilitate politikoak ordezkatzen dituzten herritarrek politikari eta demokraziari buruz dituzten pertzepzio, jarrera eta balorazioen azterketan eta interpretazioan oinarrituko dira, baita iritzi eta jarrera horien atzean dauden motibazioetan eta balio-unibertsoetan ere.

Azterlanaren helburu bereziak honako hauek izango dira:

- Herritarren arretaren eta balorazioaren gako nagusiak finkatzea maila sozialean, ekonomikoan eta politikoan.
- Interesgune, arreta eta kezka nagusiak identifikatzea.

- Grabación informática. En caso de existir alguna pregunta abierta, la grabación literal de las respuestas textuales y su posterior codificación será llevada a cabo por la empresa adjudicataria. Esas respuestas textuales deberán aparecer grabadas en columnas de texto añadidas al final del fichero de datos.

- Elaboración de la base de datos.

- Informe provisional de resultados.

- Informe final de resultados, incluida su valoración.

  La empresa adjudicataria se encargará de las labores de diseño del informe final, que se someterá a validación de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

- Entrega y presentación de informes y de las bases de datos.

4. Tareas a desarrollar. Lote 2.

Se realizarán dos estudios anuales cada año completo de legislatura. Si la técnica propuesta es la de los grupos de discusión (focus group), se formarán cinco grupos por cada estudio compuestos por un mínimo de 8 participantes y deberán ser preferentemente presenciales. En 2027 —último año de legislatura—, se realizará un único sondeo durante el primer semestre.

Los estudios cualitativos permitirán conocer el sentir de la ciudadanía en relación con una serie de elementos que vertebran la actual situación social, económica y política, basándose para ello en el análisis e interpretación de las percepciones, actitudes y valoración que la ciudadanía representante de las diferentes sensibilidades políticas tienen respecto a la política y la democracia y las motivaciones y universos de valores que están detrás de estas opiniones y actitudes.

Los objetivos particulares del estudio serán:

- Fijar las principales claves de atención y valoración ciudadana a nivel social, económico y político.
- Identificar los principales focos de interés, atención y preocupación.

- Lurraldeko erakunde publikoen irudia aztertzea.
- Gipuzkoako egoera sozial, ekonomiko eta politikoari dagokionez, lurraldeko erakundeekiko atsekabe / gogobetetze-maila aztertzea.
- Gipuzkoako erakunde publikoen konfiantza, hurbiltasun eta gaitasun maila egiaztatu eta konparatzea.

Zehazki, enpresa esleipendunak zeregin hauek izango ditu:

- 2024-2027ko plangintza, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera (helburuen definizioa, irismena eta ezaugarriak).
- Eztabaida-taldeetan edo focus group taldeetan parte-hartzaileak erakartzea, Estrategiaren Zuzendaritza Nagusiak ezarritako parametroen arabera.
- Eztabaida-taldeen garapenean erabiliko den lan-gidoia egitea.
- Eztabaida-taldeen edo focus group taldeen dinamikak egitea.
- Eztabaida-taldeen edo focus group taldeen bileren transkripzioak.
- Azterlanaren diskurtsoaren analisia (informazio kualitatiboa).
- Azterlanaren emaitzen aurrerapenak egitea eta entregatzea.
- Azterlanaren azken txostena egitea eta entregatzea.

5. Egin beharreko lanak. 3. lotea.

Etengabe entzuteko hamar zundaketa egingo dira, eta joerei buruzko lau zundaketa legegintzaldiko urte oso bakoitzean. 2027an – legegintzaldiaren azken urtean –, etengabe entzuteko bost zundaketa eta joeren bi zundaketa egingo dira lehen seihilekoan.

Enpresa esleipendunak, zehazki, honako lan hauek egin beharko ditu:

- Analizar la imagen de las Instituciones Públicas del Territorio.
- Analizar el grado de (in)satisfacción con las instituciones del Territorio en relación con la situación social, económica y política de Gipuzkoa.
- Comprobar y comparar el grado de confianza, cercanía y capacidad de las Instituciones Públicas de Gipuzkoa.

La empresa adjudicataria deberá realizar, en concreto, las siguientes tareas:

- Planificación 2024-2027, conjuntamente con la Diputación Foral de Gipuzkoa. (definición de objetivos, alcance y características).
- Captación de participantes en los grupos de discusión o focus group, de conformidad con los parámetros marcados por la Dirección General de Estrategia.
- Elaboración del guión de trabajo que se utilizará en el desarrollo de los grupos de discusión.
- Realización de las dinámicas de los grupos de discusión o focus group.
- Transcripciones de las reuniones de los grupos de discusión o focus group.
- Análisis de discurso (información cualitativa) del estudio.
- Realización y entrega de los avances de resultados del estudio.
- Realización y entrega del Informe Final del estudio.

5. Tareas a desarrollar. Lote 3.

Se realizarán diez sondeos de escucha permanente y cuatro sondeos de tendencias anuales cada año completo de legislatura. En 2027 – último año de legislatura-, se realizarán cinco sondeos de escucha permanente y dos sondeos de tendencias durante el primer semestre.

La empresa adjudicataria deberá realizar, en concreto, las siguientes tareas:

- 2024-2027ko plangintza, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera.
- Parte-hartzaileak erakartzea eta bahetzea, Estrategiaren Zuzendaritza Nagusiak ezarritako parametroen arabera.
- Estrategiaren Zuzendaritza Nagusiarekin lankidetzan aritzea galdetegiak egiteko.
- Zundaketetarako tresna digitalak erabiltzea eta kudeatzea.
- Lortutako informazioa aztertzea (informazio kualitatiboa).
- Emaitzen aurrerapenak egitea eta entregatzea.
- Azken txostena egitea eta entregatzea.

Lote honen enpresa esleipendunak bermatu beharko du Gipuzkoako Foru Aldundiak tresnarako sarbide iraunkorra izango duela.

6. Azterketa eremuak. 1. lotea.

"Gipuzkoako Soziometroaren" esparruan, etengabe eta modu ebolutiboan jaso nahi diren gai finkoak honako hauek dira:

6.1. Gipuzkoako Foru Aldundia: herritarrek erakundeez duten irudia adierazle garrantzitsua da, horren bidez arduradun politikoek beren jarduna zuzen baitezakete, herritarren ustez desgokiak diren edo gaizki komunikatuta dauden jarduerak ezagututa. Horretarako, honako hauek zehaztu beharko dira:

- Erakundearen irudia.
- Egindako lana.

6.2. Politika: beharrezkoa da erakundeek ematen duten konfiantzak eta politika orokorrak sortzen duten irudia egiaztatzea. Herritar eszeptikoak herritar mesfidatiak dira, legediarekin fidatzen ez direnak eta estatua eta erakundeak aurkakotzat ikus ditzaketenak. Erakundeen lanak prestigioa galdu du azkenaldian komunikabideetan maiz agertu diren praxi politiko kaskarraren ondorioz. Errealitate horri maila global zein partikularrean eragin behar zaio hainbat alderdi aintzat hartuta:

- Planificación 2024-2027, conjuntamente con la Diputación Foral de Gipuzkoa.
- Captación de participantes y cribado, de conformidad con los parámetros marcados por la Dirección General de Estrategia.
- Colaboración con la Dirección General de Estrategia en la elaboración de los cuestionarios.
- Utilización y gestión de herramientas digitales para sondeos.
- Análisis de la información obtenida (información cualitativa).
- Realización y entrega de los avances de resultados.
- Realización y entrega del Informe Final.

La empresa adjudicataria de este lote deberá garantizar el acceso permanente a la herramienta por parte de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

6. Áreas de prospección. Lote 1.

Los temas fijos sobre los que se desea mantener una percepción constante y evolutiva, en el marco del "Sociómetro de Gipuzkoa", son los siguientes:

6.1. Diputación Foral de Gipuzkoa: la imagen de las instituciones derivada de la labor percibida por la ciudadanía aporta un potente indicador que a los responsables políticos les permitirá redirigir las actuaciones que a juicio de la ciudadanía estén desviadas o mal comunicadas. Por ello, se deberán articular las cuestiones necesarias que concreten:

- Imagen institucional.
- Labor realizada.

6.2. Política: es necesario constatar la imagen percibida de la política en general y de la confianza que transmiten las instituciones. Una ciudadanía escéptica implica una ciudadanía desconfiada y recelosa de la propia legislación que puede observar al estado y a las instituciones como hostil. La reciente invasión mediática de los casos de mala praxis política ha hecho desprestigiar la labor institucional. Se hace necesario pulsar esta realidad

- Irudia.
- Erakundeekiko konfiantza soziala.

6.3. Hauteskunde prospekzioa.

6.4. Politika publikoak: ezinbestekoa da kudeaketa konkretua eta gizartearekiko gertutasuna baloratzea, benetako behar eta eskakizunetatik urruntzen den zuzendaritza politiko bat ekiditeko. Horretarako, ezagutzari, balorazioari eta eraginari lotutako politika zehatzak bultzatuko dira modu jarraituan. Horiek horrela, hauxe aztertuko da:

- Departamentu bakoitzaren politiken ezagutza.
- Obra eta zerbitzuen balorazioa.

6.5. Herritarra: aurrekoak erakundeen lanaren adierazle oso argi eta eraginkorrak ezartzen ditu, baina ez dugu ahaztu behar herritarra bera eskubideak dituen subjektua dela, bai eta bizitza-kalitatea eta ongizatea hobetzeko dituen unitatea ere. Horregatik guztiagatik ezinbestekoa da arreta jarri eta, egoera errealari begira, haren behar eta eskari zehatzei erantzutea, arduradun politikoek herritarren erradiografia izan dezaten eta dagokion moduan jardun dezaten, haien finantza-, familia- eta lan-egoera kontuan hartuta. Adierazle zehatz hauek eskuratuko dira:

- Herritarren beharrak.
- Ekonomia eta enplegua.
- Familia-egoera.
- Aurreikuspenak.
- Gizarte-sentimenduak

6.6. Plan Estrategikoko datuen neurketa: aurreko puntuetan jasotakoen inguruan herritarrek duten iritzia haztatzeaz gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Plan Estrategikoan sartutako jarduera-esparru jakinak ere neurtu ahal izango dira haien eragina aztertzeko.

a niveles globales y a niveles particulares barriendo:

- Imagen.
- Confianza institucional social.

6.3. Prospección electoral.

6.4. Políticas públicas: es inevitable valorar la gestión concreta y su nivel de adhesión social para evitar una dirección política contraria a las necesidades y demandas reales. Para ello, se pulsarán de forma continua las políticas concretas en cuanto conocimiento, valoración y afección. Siendo así, se testará:

- El conocimiento de las políticas concretas por departamento.
- La valoración de obras y servicios.

6.5. Ciudadano/ciudadana: lo anterior establece unos indicadores muy claros y operativos de la labor institucional, pero no debemos olvidar al propio ciudadano como sujeto de derecho y como unidad definitiva a mejorar en cuanto a calidad de vida y bienestar. Es por ello necesario fijarse en él/ella, en sus necesidades y demandas concretas, en su situación real, para aportar a los responsables políticos una radiografía de la ciudadanía y operar en consecuencia, centrándose en su situación financiera, familiar y de empleo. De tal forma, se obtendrán indicadores precisos de:

- Necesidades ciudadanas.
- Economía y empleo.
- Situación familiar.
- Perspectivas.
- Sentimientos sociales.

6.6. Medición de datos incluidos en el Plan Estratégico: además de pulsar la opinión de la ciudadanía sobre las cuestiones recogidas en los puntos anteriores, determinados ámbitos de actuación incluidos en el Plan Estratégico de la Diputación Foral de Gipuzkoa podrán ser objeto de medición para calibrar los impactos derivados de su actuación.

6.7. Bestelakoak: herritarren beharren berri emango duen kanal ireki bat izatearen ideiak malgua izan behar du berrikuntzak txertatzeko, bai arlo politikoarenak gertakariei dagokienez, bai eta herritarrenak ere beren behar eta eskariei dagokienez. Hori dela eta, atal ireki bat prestatuko da garrantzia edo gaurkotasun berezia duten gaiak bertan sartzeko.

7. Azterketa eremuak. 2 eta 3 loteak.

Esleipendunak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak batera egingo duten plangintza-fasean, azterlan bakoitzaren xede izango diren gaiak zehaztuko dira.

8. Informazioaren segurtasuna

Enpresa adjudikaziodunek konpromisoa hartzen dute kontratu hau exekutatzen den bitartean informazioaren segurtasunari eta datuen babesari buruz indarrean dagoen araudia betetzeko, eta, bereziki, konpromisoa hartzen dute lortutako datu pertsonalak ez aplikatzeko edo erabiltzeko agiri honetan agertzen ez diren helburuetarako, eta hirugarrenei gorde ditzaten ez lagatzeko.

Datuak tratatzea dakarren jarduera bakoitzean, kontratistek araudi aplikagarrian ezarritako xedapenak eta eskakizunak beteko dituzte.

9.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta entitate adjudikaziodunen arteko harremanak

Enpresa esleipendunek arduradun bat izendatuko dute, Gipuzkoako Foru Aldundiko Estrategia Zuzendaritzarekin solaskidea izango dena.

6.7. Otros temas: la idea de mantener un canal abierto para la deducción de necesidades ciudadanas requiere de una parte móvil que permita la inclusión de novedades, desde la política en cuanto a acontecimientos y/o desde la ciudadanía en cuanto a nuevas necesidades y demandas. Por ello, se habilitará una parte abierta que posibilite la inclusión de temas de especial relevancia y/o novedad.

7. Áreas de prospección. Lotes 2 y 3.

En la fase de planificación conjunta por parte de la adjudicataria y la Diputación Foral de Gipuzkoa se determinarán los temas que van a ser objeto de cada uno de los estudios.

8. Seguridad de la información

Las empresas adjudicatarias se comprometen a cumplir la normativa vigente de seguridad de información y protección de datos durante la ejecución del presente contrato y se comprometen especialmente a no aplicar o utilizar los datos personales obtenidos para fines distintos de los que figuran en este pliego, ni cederlos a terceros para su conservación.

En cada una de las actividades que implique el tratamiento de datos, los contratistas cumplirán las disposiciones y exigencias establecidas por la normativa aplicable.

9.- Relación entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y las entidades adjudicatarias

Las empresas adjudicatarias designarán un/a responsable que actuará como interlocutor con la Dirección de Estrategia de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Donostia, 2024ko maiatzaren 6a / San Sebastián, 6 de mayo de 2024

Sin.: Olatz Errazquin Amiano
ZB, Etorkizuna Eraikiz